



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

IPUINAREN HABIA



Ipuina entzun, ipuina kontatu, ipuin bizitu

ipuina



Arduraduna:
Lur Usandizaga

Adina: 3-5 urte bitartekoentzat

Non: Adunako liburutegian
Noiz

| HILABETEA | EGUNA |
|-----------|-------|
| MARTXOA | 3 |
| APIRILA | 14 |
| MAIATZA | 19 |

Ordua: 17:30-18:00 

SU EGURRA – ZOZKETA EMAITZAK

Atzo burutu zen pleno aretoan zozketa. Bakoitzari zein lote tokatu zaion jakiteko udaletxe azpiko tabloian egongo da lista jarrita. Dudaren bat eduki ezkeru udaletxera deitu (943692571).

Bestalde egurra dagoen tokia ezagutzeko hurrengo asteartean (martxoak 3) bi irtenaldi antolatu dira aguazilarekin. Bat goizeko 9:00tan eta bestea eguerdiko 14:30tan.

Norbaitek interesa baldin badu, ager dadila bi zita horietako batetara.
Udaletxe azpian geldituko gara.

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

GOBERNU ORDEZKARITZAREN HELEGITEAK

Azken urteotan udalerrri euskaldunen kontra gobernu ezberdinetako ordezkariak garatzen ari diren jazarpen judiziala areagotu egin da 2015ean. Dozenaka errekerimendu eta helegite jaso eta jasan ditugu herritar euskaldunei beraien hizkuntzan zerbitzu emateagatik. Normalizazio bidean emandako aurrera pausuak zapuztu eta euskarak oraindik EH osoan ez duen ofizialtasuna ematen den tokietan berau indargabetzea dute helburu, bizi dugun hizkuntza bazterketa areagotuz eta betikotuz.

Jakingo dezutenez, **Adunako Udalaren kontra ere** izan da errekerimendua Udaleko aktak euskaraz bidaltzeagatik. Honek demostratzen du ez dutela Adunako herriaren hizkuntza funtzionamendu naturala errespetatzen.

Horren aurrean,

Udal honetako Udalbatzak, atzo egin zen plenoan, aho batez onartu zuela eraso hauen kontrako mozioa.

Udal honek bat egiten du Kontseiluak deituta otsailaren 28an, arratsaldeko 17:30ean Donostiako Gipuzkoa plazatik abiatuko den manifestazioarekin. Manifestazio horren leloa hauxe izango da: **“Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara”**.

Herritarroi gogorarazi nahi dizuegu euskararen aurkako erasoak ugaltzen ari diren honetan beraien aurka mobilizatzearen garrantzia, eta horrenbestez, otsailaren 28ko manifestazioan parte hartzera deitzen dizuegu.

Oztopoen gainetik euskaraz bizi nahi dugulako,

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net